Idoia ZABALETA | ARGAZKI PRESS

I.G. | BILBO

**Aurten Bilboko jaiak irekiko dituzue. Zer suposatzen du horrek zuentzat?**
Askotan jo izan dugu Bilboko jaietan ia-ia txosna guztietan, Gasaren plaza mitikoan, Abandoibarran Doctor Deseorekin... baina azken hamar urte hauetan ez dugu jo oporrak beti aste honetan hartu ditugulako. Aurten, aurretik hartu ditugu Bilboko jaietan jotzeko; beraz, oso pozik gaude eta irrikan aspaldiko partez Aste Nagusian jotzeko, jaietako lehenengo egunean Bilbori egurra emateko prest!

**Plaza erraza al da Bilbo?**
Ez da erraza, gure herria da eta beti saiatzen gara zerbait berezia prestatzen. Aurten ere Bilbo erreko dugu!

**Zerbait berezia prestatu duzue? Urteurrena borobiltzeko aukera paregabea...**
Aurten gure 20. urteurrena ospatzen gabiltza eta egun aproposa izango da hau ospatzeko, gure lehenengo kontzertua Bilboko jaietan izan zen orain dela 20 urte, Sin Kuartelen!

*«Azken hamar urte hauetan ez dugu Bilbon jo oporrak beti aste honetan hartu ditugulako. Aurten, gure 20. urteurrena ospatzen gabiltzan honetan, aurretik hartu ditugu Bilboko jaietan jotzeko».*

**Zer da Aste Nagusia zuentzat?**
Oso bilbotarrak gara eta betidanik Bilboko Aste Nagusia biziki eta ito arte bizi izan dugu. Kanpoan gaudenean jende guztia gonbidatzen dugu hona etortzera benetako jaiak ezagutzeko.

**Zer da zuentzat Bilboko Aste Nagusia berezi egiten duena?**
Txosnak eta konpartsak. Ez dago munduan horrelakorik. Hainbeste pertsona borondatez lan egiten eta hainbeste eguneتan.

**Nola bizi ohi duzue musikari bezala?**
Bilboko jaietan musikari pila bat elkartzen gara eta normalean denok dena ematera etortzen gara, bai eszenatoki gainean, baita eszenatokitik kanpo. Aukera oso ona da kontzertu pila bat ikusteko eta talde ezezagun asko aurkitzeko. Gune desberdinak eta giro desberdinak musika mota desberdinekin disfrutatzeko.

**Aurtengo kontzerturen bat begiz jota duzue?**
Algara konpartsan 23an Vulk, Lukiek eta Yellow Big Machine ikusteko gogoa dugu.

**Zer botatzen duzue faltan eta zer soberan Bilboko jaietan?**
Txosnen musika bolumena oso baxua da gauean zehar. Edozein kafetegik altuago dauka! Beste alde batetik, txosnetan orokorrean entzuten den musika oso patxangeroa da edo orain 30 urtekoa. Badago musika piloa dantzatzeko patxangeroa ez dena. Txosnak beti izan dira alternatiba alde guztietatik eta musika gustura entzuteko betidanik aukera paregabea izan da.

**Parranda egiteko aukera izango duzue?**
Aurten bai, kontzertuaren ondoren sekulakoa botako dugu!



goikokiosko
DESDE 1992
Prentsa - Aldizkari espezializatua
Aldizkari atzerritarra
Bilduma - Erreserbak
HARPIDETZA ZERBITZUA
T. 94 656 10 00
Erronda kalea (7.zbkiaren ondoan). Bilbao
gk@goikokioskoa.com · www.goikokiosko.com

Bar Restaurante
BIZKAIA-BI
MENU DEL DIA Y ESPECIAL PARA FIESTAS
Jai zoriontsuak opa dizkizue
C/ Jardines, 2 • Tel.: 94- 415 23 08 • BILBO

PLANTAS SEMILLAS FLORES
MIKEL ZUAZUA
LANDAREAK HAZIAK LOREAK
944 04 95 40
RONDA 22 KALEA BILBO
www.mikelzuazua.com
info@mikelzuazua.com
Semilla y flores de temporada
Planta joven y de temporada para huertas, invernaderos y jardines
Venta de fitosanitarios y abono
Turbas y sustratos
Mini invernaderos y plásticos

Zure lokal eta aurrekontuaren araberako musika ekipoak
KRIC KRAC Soinu eta Argiak S.L.
Musika talde berri nahiz eta ospetsuetarako, bertso saio, txosna, modelo erakustaldi, dantzaldi, jai aurkezpen eta edozein ekitaldi eta lekutarako.
Zure beharren berri emango dizuten lagunak gaituzu
krickrac@krickrac.com • www.krickrac.com
* C/ GAZTELUONDO, 5 94-4222818 48.002 BILBAO

BIZKARGUENAGA
dantzarako oinetakoak eta zapata bereziak
Somera, 8. Bilbao · T. 94 416 12 40
calzadosbizkarguenaga@gmail.com

BIKABI
BIKABI ARTEKARITZA, S.L.
CORREDURIA DE SEGUROS
Nafarroa Kalea, 12 1ºezk-esk
Tel. 94.423.96.34 Faxa: 94.423.74.05 48001 BILBO
Autonomia Kalea, 12. Behea
Tel. 943.47.47.19 Fax: 943.47.47.20 20006 DONOSTIA

¡Más de 40 años enseñando a conducir!
DAM Autoeskolak
Todos los permisos
www.autoescuelasdam.com
Caserío Landaburu, 3 - Tel. 94 433 02 00 - SANTUTXU
Gordóniz, 24 - Tel. 94 656 16 57 - AMEZOLA
Gordóniz, 62 - Tel. 94 443 94 87 - REKALDE
Plaza Ugarte s/n - Tel. 94 412 77 85 - OTXARKOAGA
CAP. ADR

CUBI Bilbo
OSTALARITZARAKO IZOTZA 659 825 654



Taldearen emanaldietan bederatzi lagunek jotzen dute, guztira hamahiru kide badira ere. GARA

Ez dira inongo egitarautan ageri eta beren helburua, gaupaseroei omenaldi xume bat eskaintzea da

# ORKRESTA ELEKTRO-TXARANGAREN EMANALDI SORPRESAK

I.G. | BILBO

Ez duzu jakingo noiz, ez duzu kartelik ikusiko, ez dituzu espero, baino gaupaseroa bazara agian topatuko dituzu. Orkresta txaranga elektriko ibiltariaz ari gara. Urteak daramatzate Bilboko Aste Nagusian emanaldi sorpresak egiten. Horretarako, asteko edozein goizetan gaupaseroentzat aski ezaguna den «Bilbi» auzoan agertzen dira. Ez daude inongo egitarautan, hori da talde honen filosofia, arauak apurtuz askotan estaltzen duten Bilbo errebelde hori aldarrikatzen baitute. Emanaldi honekin ez dute inolako irabazi asmorik, musutruk egindakoa da, gaupaseroei omenaldi xume bat eskaini nahian.

Orkresta 2007 jaio zen, aurretik, «elektrotuna» elektro-txaranga zenaren oinordeko bezala. Elektrotuna Euskal Herriko elektro-txaranga aitzindaria da, zaharrenetarikoa, 1999an sortua. 2006ean, ordea, barne arazo batzuk sortu ziren, azkenean taldea apurtzera eraman zituenak, taldekide batzuk beste lagun batzuekin urte bat beranduago Orkresta elektro-txaranga sortuz.

Taldean normalean bederatzi pertsonak jotzen dute emanaldietan, baina hamahiru kidez osatuta dago, txandaka ibiltzen baitira beharren arabera. Bilbotarrak dira gehienbat, Santutxukoak, baina taldekide batzuk Ugao, Zeberio edo Ezkerraldekoak ere badira.

Gaur egun elektro-txarangen fenomenoak eztanda egin du, honen adibide dira urtero ospatzen diren elektro-txarangen topaketak. Zaila da jaietako programazioetan ez ikustea. Mugimenduan doan musikarekin poteatzeko aukera ahalbidetzen du, gazteek batez ere disfrutatzen dute.

### Bilboko jaiak, eredu bat

Orkestrarentzat Bilboko jaiak eredu bat dira, politikoki zein sozialki, batez ere kontuan hartuta zelan sortu ziren, hau da, Bilboko auzo ezberdinetako jendearen indarraz eta mugimendu sozialen babesaz. «Euskaldun bezala harro egoteko jaiak dira, eredu bat», diote taldeko kideek. Hala ere badaude zuzendu beharreko gauza asko, batez ere azken urteetan salatzen ari diren eraso sexistak: «Mikro-matxismoarekin akabatu beharra dago».

Bilboko jaietan zer dagoen sobran galdetuta, azkar erantzuten dute, egungo radio formulak edo musika komertzialak duen indarra, eta honek, musika alternatiboari irabazitako espazioak. Honen adibide garbia da regetoia, ez erritmo edo musika estilo bezala, bazik eta, atzean dituzten enpresak mezu argi batekin: «Herri honetan soberania musikala galtzen ari gara», salatzen dute.

Soberan ikusten duten beste gauza bat da Azkunaren garaitik jaiek jasan izan dituzten erasoak, modelo parte hartzailea desitxuratu eta suntsitu nahian. «Batzuk jai herrikoi eta parte hartzailetik, espainiar estatuko zenbait hirien jai modelo kontenplatibora pasatu nahi dute».

Aurretik esan bezala, Bilboko Aste Nagusian egiten duten emanaldi hau ez dute inoiz iragartzen, ordu batzuk lehenago ahoz aho lagunei eta ezagunei esaten diete akaso. Aurten emanaldia emateko intentzioa daukaten arren, guri ere, ez digute ezer aurreratu.

Gaua luzatzen bazaizu, goizeko ordu txikiak arte, agian topatuko dituzu. Edozein mozorroz jantzita, beraien kaxa, bonbo, saxo, tronpeta, gitarrez zein mikroez armaturik eta Eskorbuto, Kortatu, Hertzainaken doinuez lagundurik, parrandak ez du etenik izango. Jaiak ez baitu ez ordutegirik, ezta egitarauen beharrik ere.

# KASKAPANELAK

## Kaskagorri konpartsako kideek bost urte daramatzate Plentziako gaztetxean txosnako panelak prestatzen

I.G. | BILBO

Jakina da Bilboko konpartsetako kideek hilabeteak ematen dituztela Bilboko jaien prestakuntza lanetan. Urtarrilean hasten dira kontzertuak lotuz, kartelak, egitaraua eta Bilbon bakarrik gertatzen den konpartsen txosnen muntaian. Azken hau egiteko jaien aurreko egunez baliatzen dira, baina aurretik bada lana, txosnaren ehunka metro karratu dituzten panelak diseinatu eta margotu behar baitira.

Kaskagorriko kide den udatiar baten eskutik etorri zen ideia. Honek, Plentziako gazte asanbladari panelak gaztetxean margotzeko eskaria egin eta hauen baietza jaso ostean, urtez urte zabalik izan dituzte gaztetxeko ateak. Kaskagorriko Mikel eta Garazi konpartseroekin egon gara, eta badira jada bost urte Plentziako gaztetxea erabiltzen dutela hiru egunez, beraien panelak margozteko. Azkunak Kukutza hustu eta eraitsi zuenetik alegia. Bilbon egiteko aukera badutela aitortu diguten arren, ez da egoera berdina. Mikelen hitzetan, Plentzia oso leku aproposa da, gaztetxearen espazio fisikoaz eta lo egiteko aukeraz aparte, hondartza parean dagoenez, noizean behin bainu bat hartzeko aukera izaten dutelako.

Hiru egun hauek ez dira bakarrik lanerako, taldea osatzeko ere erabiltzen dituzte. Kaskagorri gazte mugimenduaren konpartsa bat da, beraz, urtero joan etorriak izaten dituzte, eta egun hauek paregabeak dira elkar ezagutzarako. Gosariak, parrilladak, kontzertu akustikoak edo filmak ikustea bezalako ekimenak antolatu izan dituzte urte hauetan. Aurten 30 lagun bildu dira egunero, 200 metro karratu dituzten panelak margozteko. Gero hamar egun izango dituzte, jaiak hasi aurretik, panel guztiak aldamioetan montatzeko.

### LEKU APROPOSA

**Taldeko kideek diotenez, Plentzia oso leku aproposa da, gaztetxearen espazio fisikoaz eta lo egiteko aukeraz aparte, hondartza parean dagoenez, noizean behin bainu bat hartzeko aukera izaten dutelako.**

### Aurtengo gaia

Aurtengo panelen tematika asanbladan erabaki zuten, Gernikaren bonbardaketaren 80. urteurrenarekiko zerikusia zuen zerbait egiteko erabaki zuten. Azkenean Gernikan gertatutakoari omenaldi bat egingo diote, askatasuna eta bakea sinboloak goraipatuz «Gernikako errautsetatik berpiztuta, belaunaldi berriak bizirik diraute» ideia ardatz hartuz eta lema «Herria bizirik!». Bi konpartseroen hitzetan uztartu nahi izan dute aurrera begirako lema eta Gernika, oso presente duten iragana.

Kontzertuei dagokienez, aurtengo apustua emakumeen presentzia bermatzea izan da. Horrela, Kaskagorriko oholtza gainera igoko diren talde guztietan emakumeak egongo dira; Tximeleta, Sara Hebe, Koban, Huntza edo Garilak26 taldeez gozatzeko aukera izango da. Beste apustu bat izan da umeen txokoa indartzea, horretarako Irrien Lagunak ekarriko dituzte astelehena 21ean, Kaskagorri konpartsaren egunean.

Bukatzeko, larunbat arratsaldeko 19:00etan Marijaiari harrera egingo diote, eta bertara gerturatzen den jenderentzat sorpresa bat prestatu dute haien panelak desestaliz.



Plentziako Gaztetxean prestatutako lana ez da larunbata arratsaldera ezagutzera emango. GARA













# Areatza, un pequeño país para los cocineros

## Bilboko Konpartsak organiza el único certamen del mundo de productos marinos con filosofía slow food que se realiza en la calle

I.G. | BILBO

Dentro de la variada programación de Aste Nagusia, podemos encontrar un sinfín de concursos gastronómicos, y es que cocinar en la calle uniendo cultura y gastronomía sobre la base de la participación popular es la receta que Bilboko Konpartsak quiere aplicar este año. Para lo cual, la zona de Areatza se convertirá en un hervidero de cuadrillas y cocineros desde el lunes 21 hasta el domingo 27.

Este año, como primicia, dará inicio el lunes 21 con un plato vegano, las patatas en salsa verde. Como base se utilizará para ello la receta del mítico restaurante "Amparo", una receta tradicional de Bilbo. Con esta iniciativa se ha querido visibilizar la cocina vegana, que también es de primerísimo nivel y por qué no, muy de Bilbo.



Una pareja disfruta preparando una cazuela de kokotxas de bacalao en la pasada edición del certamen. Aritz LOIOLA | ARGAZKI PRESS

El martes 22 será el turno del campeonato de tortilla de patata, certamen que hace dos años consiguió cumplir todas las expectativas con las más de mil cien tortillas que se presentaron. Los ingredientes que se pueden utilizar para este campeonato son: patata, cebolla, ajo, pimiento rojo, pimiento verde, huevos, sal y aceite.

Los siguientes días hasta el sábado están reservados para el certamen Arrain Fish Festival (BKAFF), el único del mundo que se celebra en la calle bajo la filosofía slow food. Así, el miércoles 23 los cocineros tendrán que preparar txipirones en su tinta, el jueves 24 bacalao a la bizkaina, el viernes 25 bacalao al pil pil y, para terminar con el festival, el sábado 26 habrá que cocinar marmitako. Por ultimo, ya fuera del Arrain Fish Festival y antes de despedir a Marijaia, el domingo 27 será el turno del guisado de rabo de toro.

En todos estos certámenes, podrá tomar parte cualquier persona de Bilbo o alrededores, así como aquellas que se encuentren de viaje por la villa. Para facilitar esto último, Bilboko Konpartsak cuenta con la ayuda de varios «hostel». Además, intentarán que a las viajeras y viajeros se les haga llegar una invitación para participar.

### Euskal Txiki Master

Bilboko Konpartsak también ha organizado el Euskal Txiki Master, programa en el que niñas y niños serán los protagonistas al frente de los fogones. Este año tendrá lugar su cuarta edición, y los platos a preparar en esta actividad infantil serán los siguientes: gulas y ensalada de langostinos, el lunes; pintxos de «langostinos de Ibarra» (guindillas) con anchoa y huevo de Euskolabel, el miércoles; y cazuela de kokotxas, el viernes.

Además, el viernes por primera vez la conservera de Bermeo "Anchoas Royo" ofrecerá un taller didáctico infantil.

Durante estos últimos años, las filosofías slow food y kilómetro cero, así como la preparación de platos cuyo ingrediente principal sea el pescado,

### TXIPIRONES, BACALAO Y MARMITAKO

**El miércoles 23 los cocineros tendrán que preparar txipirones en su tinta, el jueves 24 bacalao a la bizkaina, el viernes 25 bacalao al pil pil y el sábado 26 habrá que cocinar marmitako.**







**Cartel anunciador del certamen gastronómico.** GARA

# Recetas con productos de la mar como ingrediente básico

El certamen Bilboko Konpartsak Arrain Fish Festival (BKAFF) de Aste Nagusia constituye el reflejo del modelo de fiestas populares que impulsa Bilboko Konpartsak, pero además de ello, los organizadores del evento buscan que las personas que se animen a inscribirse para participar utilicen como ingredientes los productos de la mar básicos en nuestra cultura, como son los txipirones, el bacalao o el bonito.



**Presentación del certamen en el mercado de la Ribera.** GARA

De hecho, los productos de la mar han sido importantes en nuestra gastronomía desde siempre y el mercado de la Ribera, que antaño fue el primer puerto de Bilbo, es referente también hoy en día para las y los bilbainos.

Por ello, durante la presentación de BKAFF, Bilboko Konpartsak galardonó con el premio Cucharón del Arenal al Mercado de la Ribera. El premio lo recogieron Ascensión Andrés, vicepresidenta de la asociación de comerciantes del mercado y Yolanda Díez, concejala de Salud y Consumo del Ayuntamiento.

Por último, los organizadores quisieron agradecer la ayuda que numerosos agentes ha aportado para sacar adelante el certamen: los cocineros, el Ayuntamiento de Bilbo, el Mercado de la Ribera y también los puestos del mismo mercado, que han ayudado con el atrezzo.

han tenido un gran éxito entre las y los chefs del futuro. Se trata, pues, de una oportunidad única para las y los niños de pasar la mañana y para empezar o continuar salseando con la gastronomía de Euskal Herria.

### Arduo trabajo de organización

El certamen gastronómico es el resultado del trabajo voluntario de numerosas personas. «Es uno de esos trabajos que no se pueden cuantificar ni en horas ni en dinero, y en ello tienen mucho que ver Makilaren Kofradia y las y los comparseros y demás miembros que la componen, con Pedro Prieto a la cabeza», subrayan los organizadores, que destacan asimismo la colaboración de algunos de los mejores cocineros, como José Luis Pérez Landeta (Casa Rufo), Aitor Elizegi (Restaurante Bascook), Ricardo Pérez (Restaurante Yandiola), Fernando Madina (Restaurante Zapirain), Txomin Gómez (Restaurante Lurrina), Juantxu Larrucea (gastrónomo) y Marimar Alonso, Angel Ortiz y Kepa Freire, integrantes de la Kofradia de la Makila.

Bilboko Konpartsak subraya la importancia de llenar estos días el Arenal. «Es una oportunidad única de ser protagonista en Aste Nagusia, de tomar parte de modo activo y de disfrutar increíblemente».

### PLATO VEGANO

**El certamen dará inicio el lunes 21 con un plato vegano, las patatas en salsa verde. Como base se utilizará la receta del mítico restaurante "Amparo".**

### OPORTUNIDAD

**Se trata de una oportunidad única para las y los niños de pasar la mañana y para empezar o continuar salseando con la gastronomía de Euskal Herria.**

EZ
DA
EZ
Euskadi, auzolana
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Maitasuna, poztasuna, birziklapena eta elkartasuna bezalako baloreak landuko dituzte 24 aktibitatez osatutako lau guneetan

# TXIKIGUNE, «BALIOEN HIRIA»

I.G. | **BILBO**

Txikientzat programazio zabala prestatuta dute aurtengo Bilboko Aste Nagusian. Adin ezberdinetarako antolaturiko lau guneak «balioen hiria» bilakatuz. Maitasuna, poztasuna, birziklapena eta elkartasuna landuko dituzte jolas ezberdinekin.

Azken urteetan bezala Txikigunea osatzen duten lau espazio hauek Casilda Iturrizar parkean kokatuak egongo dira; goizez, 11:00etatik 14:30ak arte eta arratsaldez, 16:30tik 20:00ak arte.

Aurten berrikuntza ugari izango ditu. Besteak beste, «makillaje ibiltaria», horretarako umeek antolaturiko lau guneetatik bilatu beharko dute, horrela beste urteetan izandako ilarak ekiditea nahi dute. Segurtasunagatik 10.000 eskumutur egongo dira umeek galtzekotan identifikatzeko. Azkenik, 25 minuturo, Kale Nagusiaren 60. zenbakian Txu txu trenak hartzeko aukera egongo da.



**Txikigunea osatzen duten lau espazioak Casilda Iturrizar parkean kokatuko dira.** GARA

## Maitezitu Gunea (0-4 urte)

Maitasuna eta Heziketa uztartzen dituen gunea da. Haur txikientzat zuzenduta egongo den gune hau Ricardo Bastida iturriaren plaza eta haurren jokoen bitartean kokatuta egongo da. Gune hauek izango ditu:

- Izarren bila: hareaz beteko kutxa eta jolas ezberdinak.
- Izarretaraino: saltoka dibertitzeko puzgarria.
- Izarteka: ludoteka.
- Izar goxoak : ludobaby.
- Izartxoak: estalperik gabeko jantokia eta haur-kotxeak aparkatzeko espazioa.
- Arrantzan tzan tzan: umetxoek arrantza egiteko gunea.
- Galaxian: boladun igerilekua.
- Izar gora: umetxoentzako errokodromoa.

## Pozaktibatu (5-12 urte)

Poztasuna eta Aktibotasunaren batuketa da. Gune hau Jose Anselmo Clavetik Dario de Regoyoseraino doa eta umetxoentzat zuzenduta dago. Hurrengo jarduerak izango ditu:

- Poztasunaren makina: puzgarri ezberdinez osatutako zirkuitu itxia, barruan dugun poztasun guztia atera arazi egingo diguna. Haurrek beraiekin doazen pertsonekin parte hartu ahal izango dute (gurasoek, osabak..).
- Izar Zoroak eta Izar splash: urarekin erlazionatutako ekintza ezberdinak, barruan dugun poztasuna aktibatzeko.
- Izarrekin jolasten eta Izar jokoak: familian jolasteko jolasak.

## Bilziklatu (5-12 urte)

Bilbo eta Birziklatu kontzeptuen uztarketa da. Espazio honek birziklatzea izango du abiapuntu, eta Parkearen iturri zibernetiko zaharrean kokatuko da. Hauek dira egin ahal izango diren jarduerak:

- Bilzikla: birziklatzeko tailerraren espazioa izango da, tailer autodidakta bat izango da, irudimena lantzeko.
- Izarrak zaindu: iturri zibernetikoa birziklatzeko hondakinez beteta egongo da, denon lana izango da material horiek arrantzatzea eta dagokion kaxan botatzea.
- Izar mezulariak: txoritxo etxez betetako arbola baten inguruan egingo den tailer magikoa da. Non erabiltzaileek mezu positiboak bidaltzen eta plastilinazko izarrak egiten ikasiko dute.
- Egurrezko izarrak: egurrezko jolasak.

## Elkaraniztu (5-12 urte)

Elkartasun eta Aniztasun kontzeptuen batuketa da. José Anselmo Clavé eta saskibaloi-jokaleku zaharraren artean kokatuta. Gune honek ekintza hauek izango ditu:

- Izar txiki izar handi: gurasoek beraien umeak makillatu ahal izateko gunea.
- Izar zaparrada: tailerra.
- Izar Barritxu: Txikiguneko irratia.
- Izarren Behatokia: informazio puntua eta Txosna.
- Stand Marijaia Txiki
- Bilboko Izarra (gargantua)
- Izar koprailoa: izarren labirintoa.
- Izar disdira: photocall gunea.



# Cafe Bar Bilbao, ehun urte baino gehiago Plaza Berrian gertatzen denaren testigu

I.G. | **BILBO**

Cafe Bar Bilbao 1910. urtetik izan da Bilboko Plaza Berrian gertatzen denaren testigu. Orain dela 25 urte Mikel Martinezen familiak hartu zuen tabernaren gidaritza eta berarekin hitz egin dugu hiriburuaren bihotzean dagoen taberna honetatik Bilboko jaiak nola bizitzen dituzten jakiteko.

Mikelek Bilboko jaiak oso gustuko dituen arren, aste horretan lan asko dutela aitortzen digu. Giro ederra egoten da Plaza Berrian, egunean zein gauez. Hala ere, Cafe Bar Bilbaon alde zaharrean edo Plaza Berrian ezohikoa den jarrera eramaten dute, Aste Nagusian ez dira gauetan asko luzatzen, askotan su artifizialekin ixten dute, eta urte osoan zehar 6:30etan irekitzen badute, Aste Nagusian goizeko 8:00etan zabaltzen dute taberna. Gosariak urte osoko eskaintza izaten dira: opilak, kruasana, ogi errea, hamarnaka pintxo ezberdin, laranja zukua eta, noski, bilbotar askoren artean oso preziatua den bertako kafea.

Bilboko jaiak azken hamarkadetan asko aldatu ote diren galdetuta, Mikelek argi dauka Aste Nagusia aldatu dela, «Bilbo asko aldatu delako ere». Plaza Berrian lanean hasi zirenetik tabernen kopurua bikoiztu egin da, eta lehen ez zegoen terrazarik. Pintxoen eskaintza ere asko aldatu da, lehen gazta eta txorizoa ogi puska batekin eskaintzen bazen, orain eskaintzak eta hauen prestakuntzak ez du zerikusirik.

### Turismoaren fenomenoa

Turismoaren fenomenoari dagokionez, Mikelek aitortzen du turismoak gora egin duela kapitalean, inertzia hori dela: «Mundu guztiak esaten duen bezala, gero eta turista gehiago dago». Dena den, Aste Nagusian hainbeste bilbotar daudenez, haien artean diluitu egiten dira. Bere iritziz, askoz nabariagoa izaten da turisten presentzia abuztuko beste hiru asteetan; gainera, bilbotar asko kanpoan egoten dira aste horietan.

Edonola ere, ez du inongo kexarik Aste Nagusiaren inguruan. Garbiketak eta garraio publikoa nahiko zaintzen direla uste du, adibidez; zerbait faltan botatzekotan (bera aktorea izanik) kaleko antzerkia izango litzateke. Bere iritziz urteak aurrera eginez ekimen kultural hau nahikotxo jaitsi da.

Plaza Berrian antolatzen diren ekitaldiei buruz, esan beharra dago gune hau jaien egitarauaren barne sartzen den gune bat dela: dantzak, antzerkiak, kalejirak... Aurten beste behin ere Munduko musikak Plaza Berriko agertokia hartuko du. Egunero, 23:30etan, mundu osotik etorritako artisten eta taldeen kontzertuak emango dituzte bertan.

Mikelentzat Plaza Berriko girorik onena jendea dantzan hasten denean izaten da: «Sarritan lanetik eskapatzen naiz plazan dantzan egiteko». Arratsaldeetan egoten diren erromeriekin giro paregabea egoten dela uste du. Beraz, lasaitasunean ondo pasatu nahi duenak Plaza Berrian aukera on bat dauka Bilboko Aste Nagusi honetan.



**Mikel Martinez eta Aitor Aginako, Cafe Bar Bilbao tabernako mostradore atzean.** GARA








## ERREIBINDIKAZIORAKO TARTEA JAIETAN ERE.

Jaietan murgilduta egon arren, erreibindikazioak bere tartea aurkitzen du eguneroko ekitaldietan. Konpartsakideek urtero ikurrinari eskaintzen dioten omenaldiaz gain, eraso sexisten aurkako salaketek beren tartea dute behar den guztietan. Jaietan falta direnak ahaztu gabe: Iñigo Cabacas, urtero bere gurasoei eskaintzen zaien omenaldiaren bitartez, eta euskal preso politikoak, senitartekoek antolatutako mobilizazioei esker.

Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS








